

noaua

Erregistro Zibila, doakoa eta publikoa izatearen alde

Dirulaguntzak eskatzeko epea ireki da

Ostiral honetan, bertso-afaria


**‘Usurbil Zabalik’
ekimenaren bitartez, hutsik zeuden
sei erakusleiho itxuraberritu dira**

San Balentin eguna
Loreekin, asmatuko duzu!



 **URTINEA
LORATEGIA**

Egun osoa irekia • San Esteban auzoa
☎ 943 362 255 Faxa: 943 366 054 • urtinea@urtinea.com



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**·EDOZEIN ASEGURU IZANDA
(OCASO, SANTALUCIA...)
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).**

**ASEGURUAREKIN IZAPIDE GUZTIETAZ
ARDURATZEN GARA ZUZENEAN,**

(MOMENTU LATZ HAUETAN ASEGURUAREN POLIZA ZENBAKIA
EDO ERREZIBOIA EDO HORRELAKORIK EZ DUGU BEHAR,
ASEGURUAREKIN ZUZENEAN IZAPIDEAK EGITEN DITUGU)

943 36 21 63 (24H)

**·BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... ·ERRAUSKETAK
·Asegururik EZ duten familientzat Usurbilgo
beilatokia DOAN (gure eskutik)**

info@funerariagonzalez.es www.funerariagonzalez.es



inauteriak 2015
otsailak 14, Usurbil
Gaia: Ipuinak

12.00: Erraldioen kalejira dultzaineroekin 16.00: Gaztelekuan Karaoke Festa
18.00: Burrunbazale txarangarekin kalejira • 21.30: Afaria Gaztetxean
(txartelak salgai 14 eurotan Noaun, Irratin eta Bordatxon)

Albiste iruditan

EH-ko Mus Txapelketako kanporaketa, Gattunk Tabernan

Abian dira Euskal Herriko VII. Mus Txapelketako herriz herrikako kanporaketak. Usurbilgoa, larunbat honetan jokatu da, otsailaren 7an, arratsaldeko 16:00etatik aurrera Oiardo Kiroldegian, #Kilometroak15 ekimenaren alde zabalik dagoen #GATTUNK tabernan. Mus txapelketan parte hartu nahi duten bikoteek, 15:30etatik aurrera eman ahalko dute izena, Kiroldegira gerturatuta. Prezioa; 20 euro bikoteko.

Sariak, lehenengo 4 sailkatuen artean:

- 2 lagunentzako afaria Saizar sagardotegian.
- 2 lagunentzako afaria Aginaga sagardotegian.
- 2 lagunentzako 2 marisko saski.
- Ardo kaxak.

Udalerritik herrialdera

Herriz herriko kanporaketen ostean, herrialde mailakoa ospatuko da:

- 7 herrialdeetako finalak: otsailaren 20, 21 eta 22an.
- Final nazionala Lekeition (Bizkaia): martxoaren 7an.



Larunbat honetan jokatu da mus txapelketa Oiardo kiroldegiko tabernan, arratsaldeko 16:00etan hasita.

Herrialde mailako kanporaketarako sailkatzeko baldintzak segidan:

- 4 bikotetik-10 bikote arte: bikote 1 herrialdera.
- 11 bikotetik-18 bikote artean: 2 bikote herrialdera.

- 19 bikotetik-25 bikote artean: 3 bikote herrialdera.

- 26 bikotetik aurrera: 4 bikote herrialdera.

Informazio gehiago: ehmus.eus
kilometroak.eus

Laburrean

Bihurri ludotekako bazkide kuota ordaintzeko garaia da

Ordainketarako epea zabaldu dute, martxoaren 31ra arte. Bazkide berriek 30 euro eta jada bazkide direnek 10 euroko ordainketa egin behar dute kontu zenbaki honetan: 2095 5069 06 1063903578 (Kutxabank). Edozein zalantza argitzeko: bihurri ludoteka@gmail.com

Datorren astean, afari beganoa gaztetxean

Hilero bigarren ostegunetz afari beganoa egingo dute Usurbilgo Gaztetxeok. Hilabete honetako otsailaren 12an egokituko da. Betiko ordu eta lekuan; 20:30ean hasita, Usurbilgo Gaztetxean. Otordua borondatearen truke izaten da.

Tipi-Tapako zozketak, sarituen zain

Otsailaren 1eko masaildun pintxoaren Tipi-Tapa amaieran, hileroko zozketa egin zen Txapel-dun tabernan. Hauek izan ziren zenbaki sari-tuak:

1. saria (150 euroko erosketa balea): 5.506.
2. saria (2 lagunentzako afaria): 289.

noqua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkartea@noqua.com // www.noqua.com

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

Publizitatea:

Beatriz Alda,

publizitatea@noqua.com

Diseinu berria:

Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzio@noqua.com:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa:

Olatz Rezola,

Arantxa Zulaika.

Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Etzabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Arna-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada:

2.800 ale.

Lege-Gordailua:

SS-668-96

ISSN:

1136-6818.

Inprimategia:

Antza, Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Aritz Gorriti

Itzuli da. Gainditze bidean oteginen pentsatzen jarria nengoen, aurrera begira ginela, baina ez. Antza, bada iraganean finkatua jarraitzen duenik. Hondakinak kudeaketan "kontra" iraultza bat planteatzen segitzen duenik bada Gipuzkoan. Argi dago, maiatza gertu dugu. Berriz ere erraustegiaren mamua lozorrotik esnatu eta herrialdea jorratzen ari den zero zabor bidea oztopatu nahian dabilenik bada. Orain ordea, diskurtsoan detaile txiki-handi bat aldatuta. Egungo dimentsioetara egokituriko erraustegia nahi du, esan gabe, baina zeharka, orain arte urtetan defendatu duen proiektua

Mamu zaharrak, lozorrotik esnatzen

gaindimentsionatua zegoela onartzen ari da.

Esandakoa, esnatu dute berriz ere erraustegia defendatu izan duen eragile politikoetako batek, aipatu azpiegitura eraikitzeke nahia. Eta bera maiatzeko foru hauteskundeetan agintzera heltzen bada, egin egingo omen du. Zubietan erraustegia jarri eta Gipuzkoan zehar martxan diren atez ateko bilketa esperientziak kentzea sustatuko du. Esan duena, argi esan du. Gai honetan bidelagun izan duen beste eragile politiko bateko ordezkariak esan dio, zeharka, argi adierazi gabe baina adierazita, azeleragailua zapaltzen ari dela. Erraustegi proiektua ez dela alboratzen, baina zuhurtziaz jokat

tu behar dela, finantziarioa behar baita. Eta Gipuzkoako Hondakinak Kontsultatutik artean, hondakinak kudeatzeko azpiegitura alternatiboak, ingurumen aldetik jasangarriagoak izateaz gain, erraustegiarekin alderatuta, erdi prezioan aterako zaizkigula gogorarazten digute. Eta bitartean, gaikako bilketak gorantz Gipuzkoan. Laukoiztu egin da organikoaren bilketa azken legegintzaldi honetan. Eta noski, ezin ukatu, ondorioz, erretzeko material gutxiago dago.


Halere, erraustegia defendatzen dutenei bost axola antza. Begi bistakoa den errealitateak ez die diskurtsoa aldarazten. Orduan nola ulertu euren estrategia? Teoria bat

baino gehiago egongo dira ziur. Gutako bakoitzak bere iritzia izan dezake. Baina argi dena da, komunikazio estrategia horri eusten badie, euren kalkuluetan emaitza onak emango dizkien ustean egongo direlako izango da. Edo agian ez, nork jakin. Baina mezu horrekin norbaitengana heldu nahiko dute. Noren-gana? Oraindik ere, zero zabor bidera batu nahi ez dutenengana agian? Ezezkoan direnei? Maiatzerako berriz ere hondakinak kudeaketa eztabaida gunean egongo dela dirudi. Batzuen posizioak argitzen hasiak dira. Posizioak argitzea ona izanik. Azken hitza, zorionez, gipuzkoarrok izango baitugu. Ia hautesontziek zer dioten.

Imanol Ubeda | **Aritz Gorriti** | Nerea Zinkunegi | Maiale Unanue | Luis Aranalde | Idoia Torregarai | Joxe Piñas

Liburutegiko txokoa

Mailegatuenak 2014 (I): Sutegi udal liburutegia



0-5 urte:

"Ama"

Ruiz Johnson, M.
Kalandraka, 2014

"Non da Mimiki?"

Weninger, B.
Tarttalo, 2012

"Por cuatro esquinitas de nada"

Ruillier, J.
Juventud, 2013



5-7 urte:

"Oihaneke epailea"

Txiliku, Elkar, 2013

"A night time story"

Aliaga, R., Cuento de luz, 2012

"Luciérnagas en el paraíso"

Landa, Mariasun
Edebé, 2012
Gehiago: www.pinterest.com/sutegi05/3-mailegatuenak-2014-haur-txokoa-5-7-urte/



Haurrentzako ikusentzunezkoak:

"Porco rosso"

"Futbolín"

"Imanol Urbietaren kantak"

Gehiago: <http://www.pinterest.com/sutegi05/1-mailegatuenak-2014-haurrentzako-ikusentzunezkoak/>

Sutegi Udal Liburutegia

Liburutegia non?: Irazu 14

Eta sarean:

Bloga, <http://liburutegiak.blog.euskadi.net/usurbil/>

Twitter:

@usurbil

Facebook:

Usurbilgo Sutegi Udal Liburutegia

Noaua! Komunitatea:

Sutegi Udal Liburutegia

App:

Liburutegiak

Sutegi Udal Liburutegia

ALKORTA AUTOZERBITZUA

Baserriko haragia

•Frutak •Barazkiak •Etxeko produktuak •Izoztuak

Behoko kalea 4, ATXEGALDE AUZOA 943 36 57 42

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

Dirulaguntzak eskatzeko epea ireki da

213.900 EURO KIROLA, KULTURA, INGURUMENA, NEKAZARITZA ETA GIZARTE ARLOKO EGITASMOAK LAGUNTZEKO

Indarrean dira udal aurrekontuak. Horrek esan nahi du dirulaguntzak eskatzeko prozedura ere martxan dela. Astearteko Aldizkari Ofizialean eman ziren dirulaguntza deialdiak argitara, beraz, hogeitasei laneguneko epea dago orain eskaerak bideratzeko. Otsailaren 26a izango da dirulaguntza eskatzeko azken eguna. Bost dira diruz lagunduko diren arloak: Kirola, Gizarte Zerbitzuak, Kultura, Ingurumena eta Nekazaritza. Azken hau, aurtengo berritasuna.

Usurbilen egiten diren edo eragiten dituzten ekintzak eta egitasmoak lagundu nahi ditu Udalak. Eta norbanakoak edota elkarteak/erakundeak dira dirulaguntza jaso dezaketenak.

Udaletxetik adierazi diguten moduan, "herrian asko dira herriko dinamika ezberdinetan lanean aritzen direnak, izan kirolean, kulturaren, gizartegintzan edo ingurumenarekin lotutako lanetan. Argi daukagu herri bizi baten adierazle dela hori, eta zaindu beharreko altxorra dela. Horretarako, Udalak baliabide ezberdinak eskaintzen ditu eta dirulaguntzak bideratzen ditu".

Ekonomiaren ikuspegitik garaiak ez dira onenak. Eta hala ere, "azken urteotan ahalegin berezia egin dugu dirulaguntzak mantentzeko eta berriak ateratzeko", udal gobernutik adierazi digutenez. Guztira 213.900 euro izango dira dirulaguntzen bidez banatuko direnak.

Kirol arloan, 95.400 euro

Kirol egitasmoak garatzeko 95.400 euro aurreikusi ditu Usurbilgo Udalak 2015 urterako. Dirulaguntzak era honetan banatuko dira:

- Kirol taldeen ohiko dirulaguntza zuzenak.
- Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna planteatzen dituzten jarduerak.
- Taldeetako teknikoaren formakuntzarako laguntzak.
- Herriko kirol egiturak sendotzeko laguntzak.
- Gazteen arteko kirola sustatzeko laguntzak.
- Ekintza berezietarako laguntzak.



Kirol egitasmoetarako 95.400 euro aurreikusi ditu Udalak 2015erako.

Kultura arloan, 80.000 euro

Kulturari lotuta dauden jarduerak sustatzeko, 80.000 euroko poltsa aurreikusi du Udalak. Usurbilen egiten diren ekintzak sustatzeko dirulaguntzak denetariakoak izan daitezke: irteerak, ikastaroak, kanpamenduak, txokoak, bestelako kultur ekintzak...

Gizartekintza arloan, 18.500 euro

Gizarte zerbitzuen alorrari lotutako dirulaguntzak ere emango dira. Udalak 18.500 euroko partida gorde du propio horretarako.

Ingurumen arloan, 10.000 euro

Ingurumeneko dirulaguntzetara 10.000 euro bideratuko dira. Ekintza hauei lehentasuna emango zaie:

- Energia murrizteko egindako inbertsioak.
- Energia berriztagarriak kontsumitzea bultzatzen duten ekintzak.
- Hondakinen sorreraren murriztea edo birziklatzeko ekintzak.

Nekazaritza arloko

egitasmoetarako: 10.000 euro

Lehentasuna egitasmo hauei emango zaie:

- Nekazari gazteek ustiapenak abiatzeko egitasmoak.

- Ekoizpen ekologikoa bultzatzeko egitasmoak.
- Emakumeak nekazaritzan aritzeko ekintzak.
- Abandonatutako nekazal lurretan jarduerak berreskuratzeko ekintzak.
- Bertako nekazal produktuak kontsumitzeko ekintzak.
- Bertako nekazal arrazak berreskuratzeko egitasmoak eta nekazarien presakuntza hobetzeko egitasmoak.

Ordainketa errazteko modu berri bat

Dirulaguntza guztiak 2016ko urtarrilaren 15a baino lehenago zuritu beharko dira. Kultura arloko ekitaldien zuriketara dago salbuespena. Urrira bitarte egindako ekintzak azaroaren 13a baino lehenago zuritu behar dira. "Beti ere, ordainketa ahalik eta azkarren egiteko helburua" duela azpimarratu nahi du Udalak.

Honi lotuta, bada beste nobedade bat aurtengo dirulaguntza deialdian. Hau ere, "ordainketa ahalik eta azkarren egiteko helburuarekin". Dirulaguntzak behin behingoz onartzean, banaka postaz jakinarazi beharrean publikatu egingo dira, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, iragarki oholean eta Udaleko webgunean. Eta herritarrak hamar eguneko epea izango du alegazioak tartekatzeko.

Ostiral honetan, EH Bildu eta EAJ-PNV-ren agerraldi bateratua



Ezkerrean da Marisa Alejandro, 04/08 sumarioan epaitua izango denetako bat.

O4/08 sumarioari loturiko epaiketara salatu eta bertan auziperatuak dauden 35 lagunei, modu berezian Marisa Alejandro herritarrari elkartasuna adierazteko agerraldi bateratua deitu dute EH Bildu eta EAJ-PNV-k, ostiral honetarako, otsailaren 6rako, iluntzeko 19:00etan Sutegin. Herritarrei hitzordura gerturatzeko gonbita luzatzen zaie.

Epaiketa atzeratu dute berriz

Urtarrilaren 29an hastekoa zen Marisa Alejandro eta Ezker Abertzaleko beste 34 kideren aurkako epaiketa, bertan behe-

ra geratu da berriz. Epaiketaren hasiera atzeratu egin dute. Zehazteke dago noiz abiatuko den. Espainiako Auzitegi Nazionalak otsailaren 11n finkatuko du epaiketa hasteko data berria.

Epaiketa bertan behera geratzen den bigarren aldia da honakoa. Izatez, urtarrilaren 12an hasi behar zuen. Baina egun berean, euskal abokatuen aurka izandako polizia operazioaren baitan, Ezker Abertzaleko hainbat auziperaturen defentsa lanak egin behar zituzten hiru abokatu atxilotu zituzten. Epaiketa bertan behera geratu zen.

36ko gerraren aztarnak bilatzeko auzolan deialdia egin dute Zubietan

Zubieta Lantzen taldetik, auzolanean parte hartzeko deia, otsaileko lehen hiru larunbat hauetarako. "Azken hila-bete luzeetan Islada Ezkutatuak taldeak 1936ko gerrako aztarna ugari aurkitu ditu Zubietako mendietan: mauser fusileko bala zorroak, pistolakoak, bomba zatiak... Eta ikertzen jarraitu ahala, aurkikuntza gehiago egin daitezkeela diote. Horregatik sastrakak garbitzen aritu dira. Beraien

lanari babesa emateko, auzolaneko deialdia egitea pentsatu da, Txaldataxurreko lubakia txukuntzeko. Horretarako lanabesik aproposenak aitzurrak eta palak izango dira".

- Egunak: otsailak 7, 14 eta 21.
- Orduetgia: 08:30.
- Tokia: Artzabaleta.
- Eraman beharrekoa: autoa, aitzurrak eta palak.

Hastear dira Gure Pakeako bazkideen arteko txapelketak

Urteko batzarra egin ondoren, bazkideen arteko txapelketetan lehiatzeko aukera izango dute Gure Pakea Elkarteko bazkideek. Ekimenotan parte hartu nahi dutenek, otsailaren 6ra arteko epea dute izen emateko. Hemen duzue, 2015eko mahai joko eta mugimenduko txapelketen egutegia:

- Otsailaren 9an, astelehena: punttuan.
- Otsailaren 10ean, asteartea: tutean.
- Otsailaren 11n, asteazkena: musean.
- Otsailaren 12an, osteguna: Igel eta Toka jokoak. Sari banaketa eta askaria parte hartzaile guztiekin.

Txapelketa guztiak arratsaldeko 16:00etan hasiko dira.

Antolatzailea: Gure Pakea Elkarte.

19. Korrikarako kilometroak

eskuratzeko aukera

"Zure koadrilarekin, familiarekin, lankideekin... lekukoa eraman nahi baduzu, kilometroak lortzeko aukera daukazu! Otsailaren lehen astetik aurrera, eskuratu zure kilometroa AEKren edozein euskaltegian", hortxe, antolakuntzatik luzatu duten gonbita.

Non eskatu?

Usurbilen kasuan, Etumeta AEK euskaltegian bideratu beharko dira eskaerak:

Nagusia, 43 kalean da euskaltegia.

Orduetgia: astelehenetik ostiralera, 9:00-12:00 / 16:00-20:00.

607 609 379.

usurbil@aek.org

aek.org

muntteri.blogspot.com.es

Korrika Batzordea

Urtarrilaren 23an osatu zen taldearen hurrengo bilera, otsailaren 13an, 18:00etan Etumeta AEK euskaltegian.

www.noaua.eus

USURBILGO ATARIA

ETXETRESNEN
KONPONKETAK

Moduz, azkar eta prezio onean
MARKA GUZTIAK



645417665

XABIER

Usurbil



KONSTELAZIO
FAMILIARRAK

FAMILI ETA ESKOLAN BIZI ETA ELKARBIZI
BALIABIDE SISTEMIKOAK

(HILERO LARUNBAT BATEZ)

688 865 708 DONOSTIA

Gidabaimena euskaraz ateratzeak saria du Buruntzaldean

Gorantz doa urtez urte, Buruntzaldea mailan, gidabaimena euskaraz ateratzeko hautua egiten duten gazteen kopurua. Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte, Urnieta eta Usurbilgo Udalek, duela bost urte, 2010ean autoeskoletako jarduna euskalduntzeko egitasmoa abiatu zenetik, ia laukoiztu egin da, gidabaimenaren zati teorikoa euskaraz prestatu eta azterketa teorikoa ere hizkuntza berean egin duten herritarren kopurua.

Begiratu bestela, aurreko astean, Hernaniko Biteri kultur etxean, egitasmo honetan parte hartzen ari diren auto eskola eta udal ordezkariak aurkeztu zituzten datuak. Honakoa da 2010etik 2014ra, Buruntzaldea mailan, gidabaimenaren zati teorikoa euskaraz gaintu duten ikasleen zenbatekoa:

2010: 34.

2011: 60.

2012: 112.

2013: 135.

2014: 140.

Erronka, zati praktikoa ere euskalduntzea

140 lagunek atera zuten iaz, gidabaimenaren zati teorikoa euskaraz. 17 andoaindarrek, 17 astigarrarrek, 54 hernaniarrek, 21 lasartearrek, 19 urnietarrek eta 12 usurbildarrek.

Emaitzak eskutan, Buruntzaldeko udal ordezkariak pozik dira, duela bost urte abiatutako egitasmoarekin. Baina Hernaniko Biteri kultur etxean egindako agerraldian adierazi zutenenez, proiektua osatu nahi dute; gidabaimenaren zati praktikoa ere euskaldundu nahi lukete. Horretarako, eragile gehiagoren, beste udalerrien, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren babesa biltzen ahalegintzekoak dira. Maiatzean abiatuko dute autoeskolak euskalduntze-



2010ean autoeskoletako jarduna euskalduntzeko egitasmoa martxan jarri zenetik, laukoiztu egin da gidabaimena euskaraz atera dutenen kopurua.

ko 2015eko kanpaina berria. Egitasmoa sustatzaileek, orain arteko arrakastarekin jarraitzea espero dute.

Ane Bengoetxea Artetxe, sarituen artean

Gidabaimena euskaraz ateratzea sustatzeko kanpainan, Buruntzaldeko sei udal parte hartzen dute. Baita eskualdeko auto eskola hauek ere; Andoaingo Bengoetxeak eta Mendik, Astigarragako Otamendik, Hernaniko Hernani, Lagunak eta Otamendik, Lasarteko Izarra, Lasarte eta Mugicak eta Urnieta zein Usurbilgo Solozabalek.

400 euroko 11 sari

Aurreko urteetan bezala, 2014an gidabaimenaren zati teorikoa euskaraz prestatu, azterketa euskaraz egin eta gaintu zuten ikasleen artean zozketa egin da. Udalerrika, udalerreri bakoitzak dituen auto eskola kopuru adina sari banatu dituzte. 400 euroko 11 sari guztira. Usurbilen auto eskola bakarra dugunez, saritu bakarra izan dugu; Ane Bengoetxea Artetxeri tokatu zaio, 400 euroko saria. Zorionak!

Buruntzaldeko sarituen zerrenda

Andoain:

Andoni Alonso Lazkano.
Irati de la Revilla Otamendi.

Astigarraga:

Paula Leonet Calvo.

Hernani:

Irati Zelaia Azurmendi.
Maddi Aranburu Gonzalo.
Oihane Zalakain Gonzalez.

Lasarte:

Alex Altuna Egitegi.
Axier Balerdi Erauntzetamurgil.
Xabier Mitxelena Lopetegi.

Urnieta:

Paula Fernandez Bizkar.

Usurbil:

Ane Bengoetxea Artetxe.

Patri Jatetxea



K/nagusia 14. © 943 362 725

BORDATXO

taberna

Pintxo Bereziak

943 37 10 42

Zubiaurrenea 5



ARRANDEGIA
PELLO

PUNTAPAX 7
943 36 21 64
USURBIL

2015erako udal aurrekontuak, behin betiko onartuak



2015ean, guztira, 10.482.469'89 euroko aurrekontua izango du Usurbilgo Udalak.

Alegazioak aurkezteko epean, inolako erreklamaziorik egon ez denez, behin betiko onartu dira 2015erako Usurbilgo udal aurrekontuak. Erabakia, urtarrilaren 26an argitaratu zuten Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Honela dio: "2015. ekitaldiari dagokion

Aurrekontu Orokorren jendaurreko erakusketaren legezko epea amaitu delarik eta inolako erreklamazio edo oharririk egin ez denez, aipaturiko Aurrekontua behin betirako onestua geratzen da". Guztira, 10.482.469,89 euroko udal aurrekontu egitasmoa.

"RGI"-arekin sortu diren arazoak zuzentzeko eskaera

Ika-mika handia eragiten ari dira, azken hilabete hauetan, "RGI"-a kobratzen duten herritarrei Lanbideak bidali dizkien gutunak. Gutun horietan, Lanbideren esanetan, modu okerrean kobratutako diru-laguntzaren zati bat, handiagoa edo txikiagoa kasu bakoitzaren arabera, itzultzea eskatzen zaie milaka herritarrei. Kaltetuek plataforma bat sortua dute. Plataforma honetako kide da Victoria Angeles Molina herritarra. Gai honi buruzko mozioa aurkeztu zuen, urtarrilaren 27an egin zen osoko ohiko bilkuran. Aho bateko babesa eman zion udalbatzak.

"Okerreko ordainketak, ez okerreko kobratzeak"

Lanbideren kudeaketa txarra salatu zuen, eta itzuli beharreko dirua ordaintzeko modu arrazoizko bat adostea eskatu. Ordaindu ahal duten kopurua negoziatu ahal izatea defendatu zuen. Lanbideri erreferentzia eginez, zioenez, egin direnak "okerreko ordainketak

dira, ez okerreko kobratzeak". Egoera, Lanbideren kudeaketa txarrari egotzi zion. 86.000 familia daude bere egoera berean, Molinaren esanetan, Lanbidek gutun bidez eginiko eskaerak gauzatzen badira, gizartetik at geratzeko arriskuan.

Usurbilgo bizilagunak aurkezturiko mozioak, Udalak Jaurritzari bideratu beharreko zenbait eskaera biltzen ditu. Laburbilduz: jendaurrean barkamena eskatu eta zorra Lanbidek sortu duela argitzea; Lanbidek eragindako ordainketa okerrak ez kobratzea, errentaren hartzaileak ezingo balu bizitza duin bat egin; berme juridiko eta legal beharrezkoak errespetatu eta betetzea errenta hartzaileekin; Lanbidek eragindako okerreko ordainketek sortu duten egoera tamalgarriari azkena emateko, bere jarrera zuzentzeko eta jarraitu beharreko prozedura bideratzeko lehenbailehen; bere obligazioak behar bezala betetzea; gizarte-babeserako politikak indartzea...

Erregistro Zibila, doakoa eta publikoa izaten segitzearen alde

"Alderdi Popularraren gobernuak Erregistro Zibila esku pribatuetan utzi nahi du, horren kudeaketa merkataritza erregistratzaileei emanez, bake epaitegien eta gaurko barruti judizialen existentzia zalantzan jarriz". Hala dio, Usurbilgo Bake Epaitegiko langileek udalean erregistratu eta urtarrilaren 27ko osoko bilkuran aurkeztu zuten mozioak.

Erregistro Zibila pribatizatzeak ekarriko dituen ondorioez ohartarazten dute; 3.500 lanpostuen galera, Bake Epaitegiak zereginenez hustea, zerbitzuen truke tasak ordaindu beharra izatea, datu babesaren segurtasun falta, azken urteotan Erregistro Zibila modernizatzeko eginiko inbertsioa esku pribatuetara pasatzea, Erregistro Zibilean gordetako gure historia pertsonalerako, familiarerako eta herri gisa ditugun datuetarako sarbidea murriztea...

Horregatik, gai honi loturiko uztailaren 4ko 8/2014 Errege Dekretuaren aurka agertzea, Bake Epaitegiak zerbitzu publikoa eta doakoa izaten segitzea, eta Eusko Jaurritzari Erregistro Zibila kudeatzeko eta betearazteko eskumenak jasotzeko negoziatioak azkartzea. Puntuok jasotzen dituen mozioa aurkeztu zen urtarrilaren 27ko osoko bilkuran, udalbatzak onar zezan. Bake Epaitegiko langileek aurkezturiko testua aho batez onartu zuen udalbatzak.

Larrialdietarako Udal Plan berria, ahobatez onartua

Aho batez onartu zuen udalbatzak, aurreko astean burutu den osoko ohiko bilkuran. Udalak 1999an onartua zuena ordezkatu du. Hain zuzen, 16 urte igaro dira plan hura indarrean jarri zutenetik. Zaharkitua geratu dela gogorarazten zuen Mertxe Aizpurua alkatea, urtarrilaren 27ko osoko bilkuran. Eta eguneratzeko beharra zegoela. Orduko hartan bezala, plan berri hau ere Teknimap enpresak diseinatu du.

Planak, larrialdi egoeretan, ondasun eta pertsonak babesteko araudia, abiatu beharreko mekanismoak, eta erabili beharreko baliabideak zeintzuk diren jasotzen du. Besteak beste, alarma egoeretan, Krisi Mahaia nola eratu, jarraibideak zehazten dira

Usurbilgo Udalak onarturiko larrialdieterako plana, Babes Zibilerako EAeko Batzordea bidaliko dute, "udal plana homologa dezan".

Herri merkataritza bultzada berri bat

Herri merkataritza indartzea du xede Usurbil Zabalik kanpainak. Eta zehatzago esanda, paisaia komertziala hobetzearekin lotuta daude Jokin Eizagirrek berri dituen sei erakusleihoak. Ekimena Usurbilgo Udalarena izan da eta Hurbilagoren laguntza jaso du. Estetikoa ez ezik, egitasmo honek helburu komertziala ere duelako. Modu honetan ere, herri merkataritza bultzada berri bat eman nahi zaio.

Udaletxetik aditzera eman digutenez, “ikuspegi komertzialetik begirata, erakargarria eta lehiakorra den merkataritza eremu bat lortu nahi da, herri gunean bertan kokatua. Herri-merkataritza dinamikoa, herri guneari bizia ematen diena, bertan bizi direnentzako merkataritza eskaintza zabala duena eta herri gune horretatik oso gertu kokatutako merkataritza gune handiekiko abantailak eskaintzen dituena”.

Beste lan batzuen ildotik

Ez da ekimen isolatua. Azken urteotan, herri merkataritza indartzeko beste lan batzuk ere bideratu ditu Udalak: Zubiau-



“Usurbil Zabalik” kanpainaren dekorazioaz Jokin Eizagirre arduratu da. Eta biniloak egin eta pegatzeaz, fatxada inguruko markoak eta paretak margotzeaz, herriko gremioetako langileak (erreportajeko argazkiak: Jokin Eizagirre).

rrenea kalearen egokitzapena, Mikel Laboa plazaren peatonalizazioa, kale ezberdinetan batetik bestera joateko oinezko pasabideak egokitu, merkataritzarako aparkaleku errotati-boen sistema bat ere ezarri...

Fatxadak egokitu

Usurbil Zabalik kanpainak ere ildo berbera jarraitzen du. Kaxkoko merkataritzaren ingurunea eta paisaia komertziala hobetzeko intentzioarekin egin da. “Jarduerarik gabeko lokalek

hiri paisaian duten eragin kaltegarria murrizteko neurriak bultzatuko ditugu, behin behineko paramentu bertikalak ezarri edo horien ordeztu, itxita dauden lokaletako erakusleihoak edo fatxadak egokitzeko lanak eginenez”, udal iturriek jakinarazi digutenez. Eta lan horretan aritu da Jokin Eizagirre. Erakusleihoak edertzen.

Deialdi bat egin zuen Udalak eta hamalau lokal jabe eman zuten izena. Udalak ezarri zituen irizpideen arabera, sei

proiektu bideratu dira. Fatxadak berritzen aldiz, Jokin Eizagirre aritu da. Bera izan da diseinuak egin eta lanak bideratu dituena.

Gaur egun, herrian ez ditugun komertzioak irudikatu ditu erakusleihoetan, umeen zapata denda, informatika denda, dekorazio denda, bidaia agentzia bat, pizzeria bat, antigualeko gauzen denda bat...

Eta egokitu dituen lokalak, Zubiaurrenea, Bordaberri, San Inazio, Etxebeste eta Kale Nagusian kokatzen dira.

Jokin Eizagirre diseinatzailea: “Ingurua gehiegi ez aldatzen saiatu naiz”

NOAUA! Motibo bat du erakusleiho bakoitzak. Edertzeaz aparte, hutsik dauden lokal horietarako proposamenak ere egin dituzu, ezta?

Jokin Eizagirre Sagardia. Udalak sei eskaparate diseinatzeke proposamena egin zidan. Lehenbizi logoa egin nuen. ‘Usurbil Zabalik’ ideia iruditu zitzaidan egokiena. Atearen irekiera jasotzen du logoak. Pauso hori ematea, nahi hori aldeztu aurretik adieraztea.

Zer falta zaigu Usurbilen? Hortik abiatu nintzen. Ahal den neurrian, hutsune horiek aipatzen saiatu naiz.

Diseinuak egiteko garaian, hutsik zegoen lokala ez ezik, aldameneko komertzioen paisaia ere kontuan izan duzu.

Hala da. Ingurua gehiegi ez aldatzen saiatu naiz. Neurri batean, deigarri izan behar du, baina gehiegi destakatu gabe. Etxeak duen itxura kontuan hartu da baina baita aldame-

neko komertzioen itxura ere.

Batez ere argazkiak erabili dituzu dekoraziorako, ezta?

Argazkiak Internetetik hartuta daude, erosita. Inpresioa binilo bitartez egin da.

Azkenean, dirulaguntza honen bitartez gastu bat egin behar bada, gerorako ere funtzio bat izan dezala. Markoak eta paretak ere txukundu ditugu.

Eskaparatean argazki bat edo binilo hutsa jartzearekin ez genduko lortuko.

Lokalen jabeekin hitz egin duzue. Nola hartu dituzte zure proposamenak?

Denek oso gustura hartu zuten. Jabe bakoitzarekin bilera egin genuen Udaletxean. Oso gustura zeuden, ez da arazorik izan. Proiektua aurkeztu genien ordenadorez, eta denak aurrera egiteko esan ziguten.

Kontsentsuatuak lana izan da beraz. Lanak amaituta, nola hartu dituzte erakusleiho berriak?

Denek hartu dute ondo!

Erakusleihoak apaindu aurretik,



Dekorazio denda. "Apaintze hutsak zer eman zezakeen aztertzen hasi nintzen, baina ez zuen ezer ematen. Nondik hasi behar zen? Ba gabezietatik. Ideia berriak irudikatuz, gabezia horiek betetzen saiatu naiz". Lokal huts honi, adibidez, dekorazio denda baten itxura eman dio Jokin Eizagirrek. "Lokal handi samarra delako". la kasu guztietan biniloa erabili du eskapareak edertzeko. Eusko Jaurlaritzak ezarritako irizpidea zen hori, biniloa hobestearena.



Pizzeria eta bigarren eskuko denda. Pizzeriaren kasuan, "toki goxo bat proposatzen da, kaxkoan, denda zahar batean. Xarma hori mantentzen saiatu gara. Baina ez pizzeria industrial horietakoa, baizik eta artesanala, produktu ekologikoekin lan egingo duena". Erakusleihoa ez ezik, markoa ere txukundu da. Pizza saltokiaren aldamenean, bigarren eskuko denda bat edo antiguleko gauzak saltzen dituen denda bat irudikatu du.



Zapata denda. "Azulejoa, etxearen bestalderaino margotzea proposatu nuen. Lokala bakarrik egingo balitz, ez genuke ezer lortuko. Petatxo bat bezala geratuko litzateke. Kasu honetan, azulejoa margotu da buelta osoan". Zapata denda bat proposatzen da hemen, "baina jolasa ere bilatzen da".

erakusleihoak apaindu ondoren



Murala. "Aukera ezberdinak egin nituen, paisaia bat, 'zen' itxurako zerbait... Baina denak nabarmenegiak geratzen ziren eta beste dendei lekua jaten zien. Huraxe bakarrik ikusten zen". Xaxa hutsaren ideiarekin eman zuen arte. "Espazio huts bat adierazten du. Deigarritasuna neurtua da orain". Spray-arekin margotuta dago eta eraikinak aurrez zuen tonoarekin bat dator. Perspektibarekin jokatu du, efektu bitxia sortuz.



Ordenagailu denda. Gauzak lehen nola zeuden, azkar asko ahazten ditugu. "Inportantea da ikustea lehen nola zegoen eskaparatea. Horrela nabarmentzen baita benetan zein izan den aldaketa". Kaletik ibiltzean, beste itxura bat hartzen du orain kaxkoak, eta inguruak. Jokin Eizagirrenen esanetan, "biniloarekin erakusleioa txukunduz bakarrik, ez genuke ezer lortuko".



Bidaia-agentzia. "Urbilek egiten duen lanak zaildu egiten du herriko martxa, hori hala da. Baina ilusio bat piztu behar da", halaxe aitortu digu Jokin Eizagirrek. Bidaia-agentzia baten itxura du fatxada honek. "Usurbilen ez duguna". Markoaren buelta osoa margotu da eta pertsiana goran utzi, irekita.

Bi denborale astebetean

Negu gorrian gara aurreko asteburutik. Urtarrilaren 30ean botatako euri jasek Oria bere bidetik aterarazi zuten. Aginaga, Txokoalde eta Santuenea inguruko erriberan esaterako. Zalantzarik gabe, oraingoan, kezka gehien sortu duen zonaldea ordea, Zubietako Aliri zubi ingurua izan da. Ostiral iluntzean, zubia eta zubia zeharkatzen duen herri bidea itxi behar izan zuten, erriok gainezka egin eta bide zati bat urpean geratu ostean.



Lehen denboraleak utzitako arrastoak ikus daitezke noaua.eus orriko argazkitegian edota bideoetan.

Kezka zen baita, errio izkinetan bizi diren herritarren artean, Santuene edota Txokoalde inguruan. Zenbait bizilagunek etxe ataritik geratu izan izan zuten ura. Baina zorionez ez zen ezbeharrik

izan. Biharamunean, Txikierditik Zubietarako bidea udal langileek garbitu eta ireki zuten berriz. Asteburuan zehar haizea eta euri zein kazkabar erauntsi gehiago izan genituen arren, errioko urak bere bide-


ra itzuli ziren. Barealdia heldu zen aste hasieran, baina ez zuen askorik iraun. Aldizkaria helduko zaizuen egunotan, astebeteko tartean izango dugun bigarren denborale betean egongo gara.

Lehen elur malutak iritsi dira

Asteburuko lehen denboralea igaro orduko heldu zitzaigun bigarrena astearte goizean. Irargarpenei aurre hartuta, aurreikusitakoa baino egun bat lehenago heldu ziren lehen elur malutak Usurbila. Kaxkoraino, nahiz segituan urtu. Mendi gainak bai, ederki zuritu zituen; bai Andatza, baita iruditan duzuen Bordatxo mendia ere.



Elurra egin zuen astearte goizean.



SALTXIPI
JATETXEA • RESTAURANTE

Zure betiko
bazkari/afariak Saltxipin

943 32 33 10 Reservas@saltxipi.com



Ategorrietako galtzarra zaharra, 3 DONOSTIA



Tonbola, #Kilometroak15-en alde

Kilometroak15 jaia Udarregi Ikastolako eraikin berria diruz laguntzeko baliatu nahi da. Horretan, diru iturriak lortzeko lanean dabil batzordeetako bat. Martxan duten egitasmoen artean da, 60.000 euroko saria jokoan jarri duen "Gure Zozketa". Edota jarraian, zehaztasun gehiagorekin aurkeztuko dizuegun Gattunk tonbola; Udarregi Ikastola laguntzeko elkartasuna sustatu eta urriaren 4ko jaialdia girotzera datorren ekimena.

Barne antolaketan lanetan zabilzate oraindik, ezta?

Gattunk tonbola: Batzordeak osatu zirenean, diru iturriak bilatzeko taldean sartu ginen. Tonbolaren aukera hor zegoela ikusita, gure gain hartuko genuela erabaki genuen. Horretan buru belarri jarri ginen. Tonbolarako materiala biltzen lagundu zuten kontaktu batzuk lortu ditugu. Email piloala bidali dugu leku pila batera eta erantzunaren zain gara.

Nola irudikatu behar dugu antolatzen ari zareten tonbola?

Hiru tonbola egitea aurreikusten dugu; lehenengoa Sagardo Egunean, bigarrena Santixabeletan eta hirugarrena, Kilometroak egunean. Urriaren 4koaren aurreko tonbolak, erritmoa hartzen joateko, prestatzen joateko baliatuko ditugu. Ez dakigu nola egingo dugun, baina ukitu ezberdin bat emango diogu, batez ere Kilometroak egunekoari. Zerbait berezia izango da, ez izateko betiko tonbola. Jai girokoa izango da, produktu piloala jarri asmo daude. Ikusiko dugu nola antolatu. Ezaugarri ezberdinak izango ditu tonbolaren edizio bakoitzak; behararen arabera egokitu beharko dugu. Eguraldiak ere baldintzatuko du.



Larraitz Izagirre eta Ana Urdangarin ari dira Tonbola antolatzen. Egitasmoa aurrera ateratzeko laguntzaileak beharko dituzte.

Tonbola aurretik, nola bideratu asmo duzue boletoen salmenta?

Horretan gabiltza. Boletoen bidez izango da ziur. Baina ikusi behar dugu lehenbizi, zer dugun. Bildutako produktuen arabera izango da.

Herritarrok ere tonbolarako materiala uzten parte har dezakegu?

Denerako irekiak gaude. Norbait postreak, eskulanak... jendeak etxean egindako gauzak tonbolarako utzi nahi baditu, primeran. Ekimena herri osora zabaldu nahi da. Hori bai, tonbolarako materiala utzi nahi duenak, alde aurretik jakinarazi dezala ikastolan, boletok atera ahal izateko. Sagardo Egunean (maiatzaren 17an) ospatuko dugu lehen tonbola. Tamaina handiko materiala lehenbailehen jasoko bagenu hobeto. Animatu! Udalak Barrenkaleko lokala utzi dugu, tonbolarako biltegi bezala baliatzeko.

Tonbolaren aurreko esperientziak nolakoak izan dira?

Diru iturri garbi bat izaten da. Azkenean, tonbolarako materiala, opari

bitartez lortzen da. Boleto bakoitzaren sarrera ikastola finantzatzeko da. Taldeari lana eskatzen dion ekimena da, baina ez du arriskurik edo produkturik erosi beharrik eskatzen. Horregatik ikusi genuen egin beharra zegoela, herria dinamizatze eta presentzia emateko festetan eta ekintza ezberdinetan. Ekimen alai da, girotze lanerako ona ere. Merez dezakeen ekimen bat da. Aurreko edizioetan parte hartu dutenen balorazioa oso positiboa izan da. Alde horretatik, animatu gaituzte tonbola antolatzera. Taldea osatu da eta gogotsu gabiltza.

